

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2007



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ETAREN ATENTATUAREN AURREAN

2007ko urtarrilaren 5a

HAU EZ DA BIDEA, UTZI BAKEAN EUSKAL HERRIA

2006.urtea, Herri honen historiarako urtea izan behar zuenak, guztiok espero ez genuen ezustekoa ekarri digun honetan, UDALBILTZA[®] kideek bakearen aldeko bidea egingo dugu. Bakearen une kritiko honek ez du aldatuko erakundeak bakegintzaz eta normalizazio politikoaz duen jarrera.

Horrela, **egoera larri honen aurrean bake lorpenean aurrera egitekoa**, euskal gizartearen eta bere hautetsien bakearekiko konpromisoa eta indarkeriaren aurkako jarrera sendoa azpimarratu nahi dugu.

UDALBILTZA[®] kideok, gaur inoiz baino ozenago printzipio hauek aldarrikatu nahi ditugu:

1.- ERABAKITZEKO ESKUBIDEA. BURUJABETASUNA. UDALBILTZA[®] kideok, gure ordezkari nahi duen guztiaren ginetik, euskaldunen erabakitzekeo eskubidea defendatzen dugu.

2.- DEMOKRAZIA. Euskal Herriaren hitza errespetatzeak bere ordezkari politikoek hitza eta erabakia errespetatzea suposatzen du, bere borondatea honen ginetik jarri nahi duen guztiaren aurrean.

3.- GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA. Gure herriarentzat eskubide demokratikoak defendatzeak pertsona guztien gizabanako eskubideak errespetatzea du bere oinarrian. Horregatik giza eskubideei errespeturik ez dion orori, kasu ETari, zera eskatzen diogu: utzi diezaiola Euskal Herriaren izena erabiltzeari, gu, udal mailako euskal hautetsiek, ez baitugu onartzen euskaldunen izenean egindako giza eskubide urraketarik.

Euskal Herriko hitza eta borondatea ordezkatzeko dugunak Euskal Herriko hautetsiak garenez, gure adin nagusitasunetik, euskal gizarte eta politika eragile guztiei, printzipio hauek elkarrekin aldarrika ditzagun eskatu nahi diegu.

Gizarteko eragile guztiok batera ETari ausardiaz esan diezaiozun:
HAU EZ DA BIDEA, UTZI BAKEAN EUSKAL HERRIA.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®] ko Zuzendaritza Batzordeko Lehendakaria

Iruñea, 2007ko urtarrilaren 5a

GURE ERAKUNDEEN ALDE

2007ko urtarrilaren 25ean

Lehendakariari Batasunako buruzagiekin elkartzeagatik ireki dioten zigor auzia dela-eta, UDALBILTZA[®]k, Euskal Herriko udal hautetsien biltzarrak, ondorengo hau adierazi nahi du:

1. Elkar hizketa dela pakea eta normalizazio politikoa lortzeko tresna demokratiko oinarri-oinarrizkoena.
2. Lehendakaria, Euskadiren ordezkari instituzional gorena, elkar hizketan aritzeagatik auziperatzea, botere judiziala politika demokratikoaren arloan behar ez bezala eta larriki sartzeari dela eta lehendakariaren ihardun politikoa kriminalizatzea, ihardun horretarako izan denean demokratikoki aukeratua.

Alegia, eraso bat da gatazkak konpontzeko biderik demokratikoenaren aurka, hau da, elkarrekin hitz egitearen aurka; gure erakundeei egiten zaion eraso larria eta, azken batean, euskal gizarte osoaren aurkako eraso.

3. Gure laguntza eta bultzadarik tinkoena Lehendakariari, bide batez eskatuz itxiztat eman dadila hark ordezkatzeko duen hiritargoaren aurka irekia dagoen zigor auzia.

Horregatik guztiagatik dei egin nahi diegu Euskal Herriko udal hautetsi guztiei eta, oro har, euskal herritar guztiei datorren astelehenean, hilak 29, Bilbon "Gure erakundeen alde" izenpean egingo den manifestaziora eta, era berean, esku hartu dezatela helburu berarekin antolatuko diren ekimen guztietan, hala sinadura bilketak nola mozioak aurkeztea hainbat arlotako Erakundeetan.

UDALBILTZA[®] ko Lehendakaria
Julian Eizmendi Zinkunegi

UDALBILTZA[®] ko Lehendakariordea
Jesus M^a Agirrezabalaga

Azpeitian, 2007ko urtarrilaren 25ean

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, SU ETENAREN HAUSTURAREN AURREAN

2007ko ekainaren 5a

ATZERAPAUSUA

ETAk su etena hautsi izanak, berriro iragan ilunera eramaten gaitu. Beldurra eta mehatxuaren iraganera; demokrazia, bakea eta normalkuntza ezera. Euskaldun oro ezintasun eta etsipenean murgilduak uzten gaitu.

Egoera honetan inoiz baino ozenago esan behar dugu herri honek bere etorkizuna bakean eta askatasunean erabakitzeko eskubidea duela eta eskubide hau gauzatzeko ETA dela oztoporik nagusia.

Su-etenaren hausturaren ondorio nagusiak hauek dira:

1. Batasunak Anoetan planteatutako ibilbidearen amaiera, bide politikoen bukaera.
2. ETAk horrela erabakita, bake prozesuaren amaiera eta indarkeriaren, beldurraren itzulera.

Testuinguru honetan, Euskal Herriaren bakea eta erabakitzeko eskubidea defendatzen ditu UDALBILTZA[®]k eta horiexek defendatuko ditu iraganean bezala etorkizunean ere. Gizarte honek duen erabakitzeko eskubidea bakean, demokrazian eta askatasunean gara dezagun UDALBILTZA[®]ko hautetsiek lan egiten jarraituko dugu.

ETA berriz ere euskal gizartearen aurka joan da aurrez aurre, indarkeriari bai eta bake prozesuari ez esatea suposatzen duen erabakiarekin. Honez gain euskaldunok eman ez diogun eta erabat ukatzen diogun euskal gizartearen ordezkariak hartzen du beregain.

Beraz, ETAk ez bezala, UDALBILTZA[®]ko hautetsiok aterabideak honako printzipioetan oinarritu behar duela uzte dugu: indarkeriaren amaieran, ETAREN behin betiko desagerpenean eta eragile politikoen arteko elkarrizketetan oinarritutako adostasunean.

Guk bide honi jarraituko diogu.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko lehendakaria

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, DURANGOKO ATENTATUAREN AURREAN

2007ko abuztuaren 24a

EUSKAL GIZARTETIK KANPO

Gaur, 2007ko abuztuaren 24a, inoiz baino ozenago herri honek bere etorkizuna bakean eta askatasunean erabakitzeko duen eskubidea aldarrikatzen dugu. Baina bide honetan, egun ere Durango erakutsi duen moduan, ETA da oztopo nagusia.

Gaur, UDALBILTZA[®]tik honakoa adierazi eta aldarrikatzen dugu:

1. Gure elkartasuna zauritutako eta kaltetutako pertsonekin.
2. Elkarrizketa, konponbidea eta erreferenduma dira normalkuntza politikoa lortzeko bideak, bide horretan aurrera egiteko oztopo nagusia ETA izanik.
3. Beste behin ere, alderdi eta indar politiko guztiok, eta gizarteak orokorrean, ETArri armak eta biolentzia betirako uzteko eskatzen diogu.

ETA berriz ere euskal gizartearen aurka joan da aurrez aurre, indarkeriari bai eta normalkuntza politikoari ez esatea suposatzen duen erabakiarekin. Euskal Herriaren bakea eta erabakitzeko eskubidea defendatzen ditu UDALBILTZA[®]k eta horietan defendatu ditu iraganean eta defendatuko ditu beti. Euskal gizarteak erabakitzeko eskubidea baitu bakean, demokrazian eta askatasunean.

Euskal gizartearen eta bere hautetsien bakearekiko konpromisoa eta indarkeriaren aurkako jarrera sendoa azpimarratzen ditugu.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®] ko Lehendakaria

Iruña, 2007ko abuztuaren 24a

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ESPAINIAKO AUZITEGI NAZIONALEKO FISKALAK EZKER ABERTZALEKO UDAL HAUTETSIEIEN BATZORDEKO AUZIPERATUEI EZARRI NAHI DIEN KARTZELARATZEKO ERABAKIAREN AURREAN

2007ko irailaren 14a

ASKATASUNA MUGATZEN

Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskalak Ezker Abertzaleko Udal Hautetsien Batzordeko auziperatuei ezarri nahi dien kartzelaratzeko erabakiaren aurrean.

UDALBILTZAK[®] berriz ere, aldarrikatzen dugu irmotasunez ideien askatasuna, aniztasun politikoaren eraso eta egitasmu politikoaren defentsa eta hedapenei murrizketaren kontra gaudela, betiere demokraziaz eta inposaketarik gabe egiten badira.

Herri honek biziki nahi duen normalkuntza politikoa elkarrizketaren bidez, negoziazioaz eta desberdinen arteko akordioaren eskutik ailegatuko da. Testuinguru honetan, jazarpen politikoak oztopo bihurtzen dira, baita giza eskubideen urraketa oro eta bortizkeriaren iraunkortasuna ere.

Bukatzeko, bakearekiko eta normalkuntza politikoaren aldeko konpromiso irmoa azpimarratzen dugu berriz.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®] ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2007ko irailaren 14a

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, BILBOKO ATENTATUAREN AURREAN

2007ko urriaren 9a

ONARTEZINA

Onartezina da ETAk gaur Bilbon egin duen atentatua. Ekintza bortitz honekin aspaldidanik herri honek pairatzen duen bideari ekin dio berriz ere erakunde armatuak.

Atentatua ozenki salatzeaz gain, UDALBILTZA[®]tik larriki zauritutako Gabriel Ginés bizkartzainari, honen familiari eta Galdakaoko Juan Carlos Domingo PSE-ko zinegotziari elkartasun osoa erakusten diogu.

Euskal Herriaren normalkuntza politikoa elkarrizketaren bidez, negoziazioaz eta sentsibilitate desberdinen arteko akordioaren eskutik iritsiko da. Atxiloketek eta biolentzia mota guztiek, giza eskubideen urraketa eta bortizkeriaren iraunkortasuna bermatu besterik ez dute egiten.

UDALBILTZA[®]tik elkarrizketa oinarri duen eta indarkeriarik gabeko normalkuntza politikoaren aldeko konpromiso irmoa azpimarratzen dugu berriz ere.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®] ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2007ko urriaren 9a

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EAE-KO AUZITEGI NAGUSIAK, POLITIKARI BATZUEN AURKA HASITAKO EPAIKETA

2007ko urriaren 31a

UDALBILTZA[®]k bidegabetzat jotzen du EAEko Justizi Auzitegi Nagusiak, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria, PSE-EEko Patxi Lopez eta Rodolfo Ares eta Batasuneko Arnaldo Otegi, Fernando Barrena, Juan Jose Petrikorena, Rufi Etxeberria eta Olatz Dañobeitiaren aurka irekitako ahozko epaiketa.

Gatazkak konpontzeko dagoen biderik demokratikoenaren aurka jo du zuzen-zuzenean epaileak, elkarrekin hitz egitearen aurka. Epaiketa bera eta egiten diren zigor eskaerak gure erakundeei egiten zaien eraso larria dira, eta erakundeei ez ezik, azken batean, euskal gizarte osoari egiten zaion eraso.

Oker larria deritzogu botere judizialak politikagintza demokratikoaren jardunean behar ez bezala tartekatzeari, politikarien eta Lehendakaria beraren joko politikoa kriminalizatzeari, horretarako eta ez beste ezertarako demokratikoki aukeratuak izan direnean eta, hori gutxi balitz, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak euskal gizartearen ordezkaritza nagusia duenean.

UDALBILTZA[®]tik elkarrizketan oinarritutako eta inolako erasorik gabeko normalkuntza politikoaren aldeko gure konpromiso irmoa adierazten dugu beste behin ere.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®] ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2007ko urriaren 31a

ETA-K CAPBRETONEN EGINDAKO ATENTATUAREN GAINDIKO ADIERAZPENA

2007ko abenduaren 4a

ETAk abenduaren 1ean Capbretonen egindakoa atentatuaren aurrean, biktimen senitartekoei gure elkartasuna adierazi ondoren, berriro ere UDALBILTZA[®]tik honako aldarrikapena egiten dugu:

1. Bizitza da giza eskubide aurrea, gorena.
2. Bizikidetzak ezinbestekoa du oinarrizko eskubide horren erabateko errespetua. Larunbatekoak eskubide horren aurka jotzen du zuzen-zuzenean, eta Herriaren nahi nagusia mespretxatzen du, behin eta berriro adierazitako borondatea arbuatuz.
3. Indarkeria eta politika elkarrekin bateraezinak dira. Bakea eta normalizazio politikoa lortzeko oztoporik nagusiena dugu indarkeria.

Gizarte osoak, halaber udal hautetsi garenok eta alderdi eta eragile politiko guztiok, gaitzetsi behar dugu ETA. ETARI indarkeria behinbetiko utz dezan exijitu behar diogu.

Aurrekoa garbi utzita, azken egunotan izandako atxiloketen haritik, UDALBILTZA[®]tik ez dugu, berriro ere, 18/98 auzia salatu gabe utzi nahi. Auzi hau hasieratik epaiketa politikoa izan da, "dena ETA dela" denaren printzipioa frogatu nahian gauzatua. Gure ustez Espainiako Auzitegi Nazionalak neurri eta oinarririk gabeko atxiloketa hauekin, gatazka handitu besterik ez du egiten.

Herri honek bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du. Eskubide horrek inplikutzen duen marko juridiko-politikoaren denon ahaleginarekin, elkar-errespetuan oinarritutako elkarriketaren bidez, bake bideetatik soilik lortuko da. Beraz, une latz hauetan, Euskal Herriko udalhautetsiok ozen gaitzetsi eta salatu behar dugu indarkeria eta ahalegindu aipaturiko printzipioen bitartez gure helburua lortzen.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2007ko abenduaren 4a

18/98 SUMARIOA

2007ko abenduaren 20a

18/98

Auzitegi Nazionalak 18/98 sumarioko auzipetuen zigorren sententzia eta espetxeratzea publiko egin ondoren, UDALBILTZA[®]tik gure balorazioa berresten dugu:

1. Epai honek justiziaren zati bat larriki politizatuta dagoela adierazten du. Gure iritziz, Estatu espainiarrean botere judizial eta botere exekutiboaren loturaren adierazle da. Europako hainbat jurista eta behatzaileek balioetsi duten gisara.
2. Aurreko komunikatuetan ere salatu izan dugu "dena ETA dela" denaren premisan zihoan prozesua zela, eta ondorengo tramitazioa, luzea eta irregularra, aurreiritzi hori frogatu nahian zebilela.
3. Auzitegi Nazionalaren jokabideak daukagun gatazkaren egoera handitu besterik ez du egiten. Euskal Herriaren normalizazioa eta bakegintzaren bidean atzerapausua suposatuz.

Herri honek bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du, horrek inplikutzen duen marko juridiko-politikoa denon ahaleginarekin adostu behar dugu. Marko hori, elkar-errespetuan oinarritutako elkarrizketaren bidez, inor baztertu gabe eta soilik bake bideetatik lortuko da.

Hortaz, UDALBILTZA[®]k 18/98+ Plataformak deitu duen ekitaldian parte hartuko du: auziperatutako pertsonen gure atxikimendua erakusteko eta sistema judizial independente baten alde egiteko.

Julian Eizmendi Zinkunegi
UDALBILTZA[®]ko Lehendakaria

Euskal Herria, 2007ko abenduaren 20a